

# BESTELAKO XEDAPENAK

LURRALDE PLANGINTZA, ETXEBIZITZA ETA GARRAIO SAILA

1771

*EBAZPENA, 2024ko martxoaren 20koa, Garraio Plangintzaren zuzendariarena, zeinaren bidez jendaurrean jartzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen 2023ko maiatzaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda.*

Dirulaguntzak emateko jardunean errespetatu behar den publikotasun-printzipioa betetzeko, 2023ko maiatzaren 16ko Aginduak 11.3 artikuluan xedatzen duenez, dirulaguntza guztiak emandakoan onuradunen eta emandako diru kopuruaren zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu beharko dira.

Hortaz, aurreko lerroaldean zehaztutakoaren arabera, honako hau

## EBAZTEN DUT:

Artikulu bakarra.— Jendaurrean jartzea Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunen zerrenda eta emandako diru-kopurua, Garraio Plangintzaren zuzendariak bere eskumenak erabiliz eman dituen ebazpenen arabera, ebazpen honen eranskinean doaz onuradunen zerrenda eta emandako diru-kopurua.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko martxoaren 20a.

Garraio Plangintzaren zuzendaria,  
SARA BARREAL JIMENEZ.

2024ko apirilaren 12a, ostirala

## ERANSKINA

Euskal Autonomia Erkidegoko salgaien eta bidaiarien errepideko garraio publikoaren sektorean teknologia berrien eta segurtasunaren sistemak eskuratu eta ezartzeko laguntza-programa bat ezartzen duen Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraioetako sailburuaren 2023ko maiatzaren 16ko Aginduan aurreikusitako laguntzen onuradunak eta emandako diru-kopuruak.

Onuraduna	Dirulaguntza (Eurotan)
B20179040	9.223,79
30663677P	532,10
B48981153	3.258,80
B20656005	3.240,00
B20526968	18.320,00